

LLET Akitania-Berria Euskadi Nafarroako Euroeskualdeko Plan Estrategikoaren eguneratzearen ekintzen laburpena

1. jardun-ardatza.

EUROESKUALDEKO HERRITARTASUNA

- 1.1. jardun-ildoak:

ORO HAR BIZTANLEEK, BATEZ ERE GAZTEEK, ETA BEREZIKI PROFESIOALEN KOLEKTIBO JAKIN BATZUEK, EUROESKUALDEKO HIZKUNTZEI BURUZ DAUKATEN JAKINTZA-ETA ERABILERA-MAILA HOBETZEA

1.1.1 ekintza: Euroeskualdeko hizkuntza-egoerari buruzko azterketa sakona egitea eta biztanleak sentsibilizatzea Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteak duen balioari buruz.

1.1.2 ekintza: Euroeskualdeko eremuko hizkuntzak eta bereziki euskara babestea ondare eta hizkuntza komun gisa

1.1.3 ekintza: Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteko aukera sustatzea ikasleen artean

1.1.4 ekintza: Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteko aukera sustatzea hainbat lanbide-sektore espezifikan, hala nola merkataritzan, ostalaritzan, turismoan eta pertsonen arretan

- 1.2. jardun-ildoak:

KULTURA EUROESKUALDEKO LANKIDETZAREN BENETAKO ARDATZ EGITURATZAILEA IZAN DADIN LORTZEA

1.2.1 ekintza: Europa sortzailearen barruan sartutako proiektuen garapena babestea

1.2.2 ekintza: Diziplina anitzeko foro egonkorra eta azoka estrategikoa finkatzea, Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako kultura- eta sormen-erakundeek ideiak batera jartzeko eta gogoeta egiteko

- 1.3. jardun-ildoak:

EUROESKUALDEKO GAZTEEK ELKAR EZAGUTZEKO ETA ELKARRI ERAGITEKO AUKERA AHALBIDETZEA

1.3.1 ekintza: Euroeskualdeko gazteen mugikortasuna sustatuko duten kirol-, kultura- eta gizarte-arloko ekintzak babestea

1.3.2 ekintza: Ikastetxeen arteko lankidetzak sustatzea, hainbat ekintza bultzatuz, hala nola ikastetxe-trukeak, gazteek elkar ezagutu dezaten

1.1. jardun-ildoak:

ORO HAR BIZTANLEEK, BATEZ ERE GAZTEEK, ETA BEREZIKI PROFESIOALEN KOLEKTIBO JAKIN BATZUEK, EUROESKUALDEKO HIZKUNTZEI BURUZ DAUKATEN JAKINTZA- ETA ERABILERA-MAILA HOBETZEA

Helburu orokorra

Lortu nahi den helburua Euroeskualdeko herritarrak konektatuta egotea da, hizkuntzaren bidez, eta horrela herritar horiek elkarrekin komunikatu eta elkar ezagutu ahal izatea. Europako herritartasuna eleaniztasuna oinarri hartuta eraikitzen da. Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak aberastasun hori baduenaz

gero, LLETaren helburuetako bat izango da aberastasun horren iraunkortasunean laguntzea, Euroeskualdearen identitatearen berezko elementua baita.

1.1.1 ekintza Euroeskualdeko hizkuntza-egoerari buruzko azterketa sakona egitea eta biztanleak sentsibilizatzea Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteak duen balioari buruz

Hedapen-kanpainak egin behar dira Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteak duen garrantziaren inguruan, haien erakargarritasuna areagotzeko. Horri esker lotura estuagoak ezarriko dira Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroaren artean, bereziki kulturaren, jarduera ekonomikoaren eta hezkuntzaren arloan.

1.1.2 ekintza Euroeskualdeko eremuko hizkuntzak eta bereziki euskara babestea ondare eta hizkuntza komun gisa

Euroeskualdeko estrategiak honako ardatz hauek izango ditu:

- Ikasle eta helduengan euskararen ikaskuntza sustatzea.
- Informazio eta Komunikazio Teknologia Berrien erabilera bultzatzea (prestakuntza-programak, online itzultzaileak, eta abar) bereziki eremu urriko hizkuntzetan, eta gazteei zuzendutako ekimenetan oinarritzea.
- Komunikabideak eta haietan diharduten profesionalak Euroeskualdearen eremua hedatzeko proiektuan sartzea.
- Euskaraz eta okzitanieraz egindako kultura- eta arte-proiektuak, eta hizkuntza horietan eginiko aisiaren inguruko proiektuak bultzatzea.

1.1.3 ekintza Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteko aukera sustatzea ikasleen artean, bereziki bigarren hezkuntzan eta Lanbide Heziketan

Hezkuntza- eta prestakuntza-alorra funtsezkoa da eleaniztasun-estrategia orotan. Euroeskualdeko hizkuntzen jakintza eta erabilera bultzatzea proposatu da, bereziki azpimarratuz bigarren hezkuntza eta Lanbide Heziketa

1.1.4 ekintza Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteko aukera sustatzea hainbat lanbide-sektore espezifikan, hala nola merkataritzan, ostalaritzan, turismoan eta pertsonen arretan

Sektore-estrategiak garatzea zerbitzuen sektoreko profesionalen artean Euroeskualdeko hizkuntzen jakintza eta erabilera hobetzeko, profesional horiek harreman handiagoak baitituzte beste eskualdeko pertsonekin. Azken batean, hizkuntza propioen erabilera sustatu behar da Euroeskualdeko benetako herritartasuna finkatzeko prozesuan aurrera egiteko garaian eragile pribilegiatuak diren sektoreetan (hots, merkataritzan, ostalaritzan eta turismoan).

- **1.2. jardun-ildoak:**

KULTURA EUROESKUALDEKO LANKIDETZAREN BENETAKO ARDATZ EGITURATZAILEA IZAN DADIN LORTZEA

Helburu orokorra

Euroeskualdea garatzeko estrategia honek kultura-eremuan lortu nahi duen helburua da sortzaile profesionalen kopurua handitzea sektore eta jarduera desberdinak indartzeko, proiektu berritzaileak sortzea (teknologiari loturikoak edo lotu gabeak) sortze-jarduna ahalbidetuko duten baldintzak sortuz, eta biztanleen artean kulturarekiko eta sormenarekiko interes handiagoa eta jarrera hartzaile positiboa sustatzea.

1.2.1 ekintza Europa sortzailearen barruan sartutako proiektuen garapena babestea

Lan-ildoek hiru norabidetan ahalbidetu behar dituzte ekimenak:

- Profesionalak eta artistak (mugikortasuneko eskualde arteko zirkuituak, artistentzako egoitzak, esperientzien trukeak, prestakuntza-programak eta abar sortzea). Kultura-eremuaren inguruan antolatutako *Focus group*-ean parte hartu zuten eragileek adierazi zuten esperientziak eta egiteko modu desberdinak trukatu behar direla.
- Kultura-proiektuak, ikuskizunen koprodukzioak sustatuz. Gogoeta estrategiko honetan esku hartu zuten eragileek nabarmendu zuten kultura-proiektuak finantzatzeko laguntzak lortu eta bideratu behar direla.
- Ikusleak, arte-hezkuntzako eta sentsibilizazioko ekimenen bitartez, kultura-agendaren eta abarren komunikazioa eta hedapena indartuz, kolektibo jakin batzuentzat bono espezifikoak eta ikuskizunen eskaintza-sareak sortzeko aukera aztertuz.

1.2.2 ekintza Diziplina anitzeko foro egonkorra eta azoka estrategikoa finkatzea, Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako kultura- eta sormen-erakundeek ideiak batera jartzeko eta gogoeta egiteko

948 Merkatua-Nafarroako Arteen Merkatua ekimenaren babesean antolaturiko gogoetan parte hartu zuten sektoreko eragileek oso modu positiboan balioetsi zuten Plan Estrategiko honek eskaintzen zien aukera kulturaren arloan esku hartzen duten Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako eragileek ideiak eta kezak batera jartzeko

1.3. jardun-ildoak:

EUROESKUALDEKO GAZTEEK ELKAR EZAGUTZEKO ETA ELKARRI ERAGITEKO AUKERA AHALBIDETZEA

Helburu orokorra

LLETa etorkizunean Euroeskualdeko eremu kohesionatua, konektatua, eleaniztuna izateko lanean ari da. Eremu horretan enplegu-arro integratua eta osagarria egongo da, elkarrekin harremanak dituzten enpresak eta Euroeskualdeko campusa, goi-mailako irakaskuntzaren, Lanbide Heziketaren eta berrikuntzaren erpin gisa.

1.3.1 ekintza Euroeskualdeko gazteen mugikortasuna sustatuko duten kirol-, kultura- eta gizarte-arloko ekintzak babestea

Hori horrela, bi ekimen pilotu lantzea proposatu da:

- **Gazteen monitoreentzako prestakuntza bikoitza abian jartzea.**
- **Gazte boluntarioen trukea Euroeskualdea osatzen duten eskualdeetako auzolandegietan.**

Euroeskualdeko herritarrentzako elementu mesedegarritzat hartu behar da kirola

1.3.2 ekintza Ikastetxeen arteko lankidetzak sustatzea, hainbat ekintza bultzatuz, hala nola ikastetxe-trukeak, gazteek elkar ezagutu dezaten

Akitania Berriko eta Euskadiko eta Akitania Berriko eta Nafarroako ikastetxeen artean trukeak sustatzea, lurralde horietako gazteenek elkar ezagutzeko arloan aurrera egiteko proiektu pedagogiko gisa, norberak bizi izandako bizipenetik kultura arteko esperientzia aberatsa sortuz.

2. jardun-ardatza:

JAKINTZAREN EKONOMIA, BERRIKUNTZA ETA ENPRESA-LEHIAKORTASUNA

• 2.1. jardun-ildoak:

2.1.1 ekintza: Sareko Euroeskualdeko unibertsitate-kopurua handitzea, haien arteko lankidetzak indartuz eta egituratuz

UNIBERTSITATEEN, LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN ETA BERRIKUNTZAREN EREMUKO BESTE ERAGILE BATZUEN ARTEKO LANKIDETZARI BULTZADA BERRI BAT EMATEA. "EUROESKUALDE CAMPUSA", JAKINTZAREN EKONOMIAREN ERAGILE	2.1.2 ekintza:	Kotutoretzako ikerketa-ekimenak areagotzea eta Jakintzaren eta Berrikuntzaren Euroeskualde Komunitatea garatzea
	2.1.3 ekintza:	Unibertsitate-titulu komun garapenean aurrera egitea eta ikasleen nahiz irakasleen Euroeskualdeko mugikortasuna bultzatzea
	2.1.4 ekintza:	Lankidetzaren dinamika bat bultzatzea Lanbide Heziketaren eremuan
• <u>2.2. jardun-ildoak:</u> I+G+Baren ALORREKO LANKIDETZA EGITURATZEA HIRU ESKUALDEETAKO ESPEZIALIZAZIO ADIMENDUNAREN ESTRATEGIETAN IDENTIFIKATURIKO SEKTOREAK OINARRI HARTUTA	2.2.1 ekintza:	Berrikuntzaren alorreko Euroeskualdeko proiektuak egituratzea Euroeskualdeko hiru lurraldeetako sektore estrategikoak oinarri hartuta
	2.2.2 ekintza:	Focus group iraunkor bat sortzea Euroeskualdeko I+G+B arloko eragileak bilduz
• <u>2.3. jardun-ildoak:</u> ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEA EUROESKUALDE-EREMUAN, KLUSTERREN ARTEKO MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA KONTUAN HARTUTA BEREZIKI	2.3.1 ekintza:	Euskarri-zerbitzua ematea Euroeskualdeko enpresa-lankidetzari
	2.3.2 ekintza:	Klusterren arteko lankidetzaren-estrategia sustatzea
• <u>2.4. jardun-ildoak:</u> EUROESKUALDEKO ENPLEGU-ARRO BAT GARATZEN LAGUNTZEA	2.4.1 ekintza:	Mugaz gaindiko langileentzat eta langileei buruzko informazio-sistemak eta -gailuak abian jartzea
	2.4.2 ekintza:	Euroeskualdeko hiru enplegu-zerbitzu publikoek partekaturiko lan-eskaintza eta lan-eskaria sortzea
	2.4.3 ekintza:	Hiru eskualdeek partekatzen dituzten lanbide-heziketako politiketan sakontzea, mugaz gaindiko praktikak eta beste ekintza osagarri batzuk garatuz

2.1. jardun-ildoak:

UNIBERTSITATEEN, LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN ETA BERRIKUNTZAREN EREMUKO BESTE ERAGILE BATZUEN ARTEKO LANKIDETZARI BULTZADA BERRI BAT EMATEA. "EUROESKUALDE CAMPUSA", JAKINTZAREN EKONOMIAREN ERAGILE

Helburu orokorra

Euroeskualde Campus bat egituratu beharra. Campus horretan, mugaz gaindiko campus-proiektua izango da Euroeskualdeko lankidetzaren eragile, goi-hezikuntzaren, jakintzaren ekonomiaren eta berrikuntzaren arloan

diharduten eragileei dagokienez. Bestalde, lan-ildo honek berrikuntzaren arloan elkarreragin eta lankidetzari handiagoa ekarri behar du unibertsitateen, teknologia-zentroen eta ikerketa-zentroen artean, eta era horretan sistema integratu bat diseinatu behar da, non balio-eskala osoa azalduko den eta elkarrekin lotuta egongo den.

2.1.1 ekintza Sareko Euroeskualdeko unibertsitate-kopurua handitzea, haien arteko lankidetzari indartzea eta egituratzea

Unibertsitate berrien sartzeari dela eta, ekintza honen lehenengo jardura gisa, **Euroeskualdeko Unibertsitateetako Foro Estrategikoa** antolatzea proposatu da. Foro hori topagunea eta elkar ezagutzeko gunea izan behar da, eta komunikaziorako tresna bat.

2.1.2 ekintza Kotutoretzako ikerketa-ekimenak areagotzea eta Jakintzaren eta Berrikuntzaren Euroeskualde Komunitatea garatzea

Jakintza, berrikuntza eta teknologiaren esparruan lankidetzaren parte hartzen duten eragileen kopurua handitzen jarraitzea, pixkanaka sartuz Euskampus eta Iberus nazioarteko bikaintasun-campusetan gaur egun ez dauden hiru eskualdeetako teknologia-zentroak eta ikerketa-zentroak.

2.1.3 ekintza Unibertsitateko titulazio bikoitzak garatzen aurrera egitea eta ikasleen nahiz irakasleen Euroeskualdeko mugikortasuna bultzatzea

Euroeskualdeko prestakuntza-eremu komuna garatzeko gakoetako bat da titulazio bikoitzen garapenean aurrera egitea, horrek truke gehiago egitea ahalbidetuko baitu. Horrek funtsezko puntua izan behar du eta horretan oinarritu behar du Euroeskualdeko unibertsitate-lankidetzak.

2.1.4 Lankidetzaren dinamika bat bultzatzea Lanbide Heziketaren eremuan

Hitzarmen-marko baten bidez Euroeskualdea osatzen duten hiru eskualdeen lankidetzaren konpromisoak egituratzea Lanbide Heziketaren inguruan.

2.2. jardun-ildoak:

I+G+Baren ALORREKO LANKIDETZA EGITURATZEA HIRU ESKUALDEETAKO ESPEZIALIZAZIO ADIMENDUNAREN ESTRATEGIETAN IDENTIFIKATURIKO SEKTOREAK OINARRI HARTUTA

Helburu orokorra

Lankidetzaren dinamika bati bide ematea, Euroeskualdeko teknologiaren eta enpresaren alorreko eragile guztiek parte har dezaten eta baterako proiektuak gara ditzaten dagozkien eskumen-eremuetan.

2.2.1 ekintza Berrikuntzaren alorreko Euroeskualdeko proiektuak egituratzea Euroeskualdeko hiru lurraldeetako sektore estrategikoak oinarri hartuta

Akitania eta Euskadiren arteko lankidetzarako lehentasunezko gisa identifikatu ziren sektore estrategikoak hauek izan ziren:

- **Aeronautika eta garraioa:** sektore aeroespaziala, garraio adimendunaren sistemak eta automobilgintza, mekanika aurreratua, material berriak, eta abar.
- **Osasuna/Bio-osasungintza:** bizitza osasungarriarekin eta zahartze aktiboarekin loturiko produktu eta zerbitzu berritzaileak, eta abar.
- **Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria:** nekazaritza-sektorearen zerbitzura (nekazaritzaren eta artzaintzaren eremua, mahastigintzaren eta ardogintzaren eremua, eta abar) egongo den berrikuntzako Euroeskualdeko sare bat sortzea, azken helburua izanik nekazaritzako elikagaien industriari loturiko lankidetzaren proiektu berriak abian jartzea, merkataritza-helburuarekin.
- **Eraikuntza jasagarria, zura:** proiektu berritzaileak garatzea basoen, zuraren, eraikuntzaren, zuntzaren eta kimika berdearen inguruan.

- **Energia berriztagarriak:** energia-berrikuntza biomasaren, itsasoko energien eta abarren inguruan.
- **Itsasoko eta itsasertzeko baliabideak, aukerak eta iraunkortasuna:** arrantza, akuikultura, turismoa, itsas garraioa, energia berriztagarriak, itsas bioteknologia.

Poitou Charentes, Limousin eta Nafarroa Euroeskualdean sartzean eremu hori handitu egin da, eta horren ondorioz lehiakortasun-abantaila gehiago eta beste lehentasun estrategiko batzuk etorri dira.

Competitiv'eko proiektuaren esparruan, Euroeskualdeaosatzen zuten esparru guztietako RIS3ak aztertu ziren, funtsezko eragileekin elkarriketak egitearekin batera. Horren ondorioz, mugaz gaindiko lehentasuneko esparru bateratu hauek zehaztu dira:

- Automobilgintza/Mugikortasun jasagarria
- Osasuna (InnoMed Consortium)
- Nekazaritzako elikagaiak (Agro-Food Digital)
- Fabrikazio gehigarria (Additive Valley)
- Haize-energia/Smart Grids /Biltegiatzea

2.2.2 ekintza Focus group iraunkor bat sortzea Euroeskualdeko I+G+B arloko eragileak bilduz

Lortu nahi den helburua da lantalde iraunkor bat sortzea. Lantalde horrek bultzatu eta monitorizatuko ditu berrikuntzaren arloan garatu beharreko lankidetzak-ekintzak.

2.3. jardun-ildoak:

ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEA EUROESKUALDE-EREMUAN, KLUSTERREN ARTEKO MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA KONTUAN HARTUTA BEREZIKI

Helburu orokorra

Hiru eskualdeetako enpresen arteko lankidetzak sustatu, zona horietako enpresen eta sektore ekonomikoen artean dauden osagarritasunak identifikatu eta horiek aprobetxatzea ahalbidetuz, bai tokiko merkatuei begira, bai nazioarteko merkatuetan sartzeari begira.

2.3.1 ekintza Euskarri-zerbitzua ematea Euroeskualdeko enpresa-lankidetzari

Ekintza honen helburua Euroeskualde-zerbitzua eratzea da, eta zerbitzu horren egitekoa Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako enpresen mugaz gaindiko lankidetzak bultzatu eta sustatzea izango da.

2.3.2 ekintza Klusterren arteko lankidetzak-estrategia sustatzea

Ekintza honen helburua da LLETa Euroeskualdeko lankidetzari denboran zehar ematen ari den bultzadarekin jarraitzea; lankidetzak hori hiru lurraldeetan dauden enpresa-klusterren artekoa da.

2.4. jardun-ildoak:

EUROESKUALDEKO ENPLEGU-ARRO BAT GARATZEN LAGUNTZEA

Helburu orokorra

Jardun-ildo honen helburu nagusia da Euroeskualdeko enplegu-arro integratua eratzen laguntzea, Euroeskualdeko biztanle aktiboek gaur egun duten baino mugaz gaindiko mugikortasun handiagoa izan dezaten.

2.4.1 ekintza Mugaz gaindiko langileentzat eta langileei buruzko informazio-sistemak eta -gailuak abian jartzea

• Mugaz gaindiko langileei administrazio-, gizarte- eta zerga-arloko gaitetan hobeto laguntzeko beharra. Alde batean eta bestean dauden arauen arteko desberdintasunak ez dira oztopo nagusia. Oztopo nagusia da arau horiek ez ezagutzea eta arau horiek sortzen dituzten zalantzak, askotan lan-arloan erabaki zailak (beste herrialde batera lanera joatea) hartu behar dituzten pertsonentzat edota mugaz gaindiko haien jardueran sor daitezkeen egoeretan.

• Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako administrazioentzat (zerga-arlokoa, soziala, lan-arlokoa, eta abar) prestakuntza-ikastaroak egiteko beharra, eta lankidetzak egonkorra eta erraza garatu ahal izateko elkar ezagutzeko bilerak egiteko beharra.

• Mugaz gaindiko lan-merkatuari buruzko informazio estatistikoa eskuragarriago egoteko beharra, informazio homogeneoa bermatzeko; horri esker, Euroeskualdeko lan-merkatuaren egoerari buruzko azterketa konparatiboa eta jarraipena egin ahal izango dira.

2.4.2 ekintza Euroeskualdeko hiru enplegu-zerbitzu publikoek partekaturiko lan-eskaintza eta lan-eskaria sortzea

Hiru enplegu-zerbitzu publikoen arteko lankidetzak indartu eta egonkor egitea da helburua, harreman errazagoa lortzeko eta protokolo bat ezartzeko mugaz gaindiko lan-mugimenduetatik datozen arazoengatik inguruan.

2.4.3 ekintza Hiru eskualdeek partekatzen dituzten lanbide-heziketako eta laneratzeko politiketan sakontzea, mugaz gaindiko praktikak eta beste ekintza osagarri batzuk garatzea

Bereziki interesgarria da ikaskuntzaren eta Lanbide Heziketaren arloko koordinazioa hobetzea (Euroeskualdea osatzen duten hiru eskualdeek eskumen zabalak dituzte arlo horretan); izan ere, ikasleen trukeaz gain, sinergiak eta osagarritasunak bila daitezke zenbait espezialitatearen eskaintzan, koordinaturiko prestakuntza-curriculumak, eta abar.

3. jardun-ardatza:

LURRALDE IRAUNKORRA ETA GARRAIOA

- **3.1. jardun-ildoak:**
BIDAIA-NAHIZ SAL-
GAIE-NAHIZ MUGIKORTASUN
IRAUNKORRERAKO ERE-
DUA SUSTATZEA EURO-
ESKUALDEAN

- 3.1.1. ekintza: **Hurbiltasuneko mugikortasuna:**
- Bidaia-NAHIZ mugikortasun iraunkorrari bide emango dioten zerbitzuak sustatzea
 - Mugaz gaindiko Hurbiltasuneko Trenbide Operadore bat sortzeko aukera aztertzea
- 3.1.2. ekintza: **Distantzia ertaineko mugikortasuna (hiriartekoa):**
- Mugaz gaindiko trenbide-zerbitzuen (bidaia-NAHIZ eta salgaiak) hedapena sustatzea

	Autobidearen erabilera sustatzea Euroeskualdeko eskalan, bidaiariak mugitzeko
	3.1.3. ekintza: Distantzia luzeko mugikortasuna: - TEN-T sarearen Atlantikoko trenbide-igarobidearekin lotzea Nafarroa - Industriguneetatik hurbil dauden nodo eta plataforma intermodalak (salgaiak) indartzea - Euskadin tren-autobidearen zerbitzua emateko proiektuari laguntzea
	3.1.4. ekintza Garraio- eta logistika-operadoreen eta zamaketarien arteko lankidetzaren sustatzea
	3.1.5. ekintza Euroeskualdeko administrazioekiko lankidetzaren bultzatzea, Euroeskualdeko errepide bidezko garraio publikoko zerbitzuak modernizatze eta hobetze aldera
3.2. jardun-ildoak: INGURUMENAREN IKUSPEGITIK ERREFERENTZIAZKO GUNE BIHURTZEAK EUROESKUALDEA, ETA LURRALDE-ANTOLAMENDURAKO POLITIKAK KOORDINATZEAK	3.2.1. ekintza: Mendialdearen barrualdean abiatutako ekimenei eustea eta horiek hedatzea
	3.2.2. ekintza: Atlantikoko itsasertza zaintzeko baterako praktikak abian jartzea
	3.2.3. ekintza: Lurralde- eta hiri-antolamendurako politikak koordinatzea
	3.2.4. ekintza: Klima-aldaketari aurre egiteko ekintzak sustatzea
3.3. jardun-ildoak: EUROESKUALDEKO BALIA-BIDE NATURELEI BALIOA EMATEA, MODU PARTEKATUAN	3.3.1. ekintza: Elkarrekin sustatzea kalitateko nekazaritza, eta nekazaritza biologikoa garatzea
	3.3.2. ekintza: Basogintza iraunkorrari balioa ematea
	3.3.3. ekintza: Energia berriztagarrien gaineko esperientzien eta ekimenen berri ematea elkarri
3.4. jardun-ildoak: EUROESKUALDEKO TURISMOA SUSTATZEKO EKINTZEN GARAPENA BULTZATZEAK, MODU KOORDINATUAN	3.4.1. ekintza: Kanpoko merkatuekiko turismo-sustapen komunari ekitea
	3.4.2. ekintza: Euroeskualdean partekatutako turismo-sektoreak eta hurbiltasuneko turismoa bultzatzea
	3.4.3. ekintza: Euroeskualdeko prestakuntza profesionala bermatzea turismoarekin lotutako lanbideetan

3.1. jardun-ildoak:

BIDAIARIEN NAHIZ SALGAIEN MUGIKORTASUN IRAUNKORRERAKO EREDUA SUSTATZEAK EUROESKUALDEAN

3.1.1 ekintza Hurbiltasuneko mugikortasuna

A) Hurbiltasuneko bidaiarien mugikortasun iraunkorrari bide emango dioten garraio-zerbitzuak sustatzea

Herritarrei gaur egungo nahiz etorkizuneko joan-etorrien eskaintzari buruz ematen zaien informazioa hobetu nahi da, bai eta horien erabilera arindu ere.

B) Mugaz gaindiko Hurbiltasuneko Trenbide Operadore bat sortzeko aukera aztertzea

Trenbide-garraioa Euroeskualde osoan sustatze aldera, funtsezkoa da antolamendu-sistema berriak eta trenbide-eskaintzaren sistema berriak garatzea; bereziki, mugaren inguruko eta mugaz gaindiko eremuan, HTOen eredu berriari jarraikiz.

3.1.2 ekintza Distantzia ertaineko mugikortasun iraunkorra (hiriartekoa)

Euroeskualdearen eremuan distantzia ertaineko mugikortasun iraunkorra sustatzeari begirako ekintza bi azpiekintza hauetan banantzen da:

- mugaz gaindiko trenbide-zerbitzuetarantz (bidaiariak eta salgaiak) aurrera egitea
- autobidearen erabilera sustatzea Euroeskualdeko eskalan, bidaiariak mugitzeko

3.1.3 ekintza Distantzia luzeko mugikortasun iraunkorra

Distantzia luzeko mugikortasun iraunkorra sustatzeko xedea hiru azpiekintzatan zatikatzen da:

- TEN-T sarearen Atlantikoko trenbide-igarobidearekin lotzea Nafarroa
- Industrieguneetatik hurbil dauden nodo eta plataforma intermodalak (salgaiak) indartzea
- Euskadin tren-autobidearen zerbitzua emateko proiektuari laguntzea

3.1.4 ekintza Garraio- eta logistika-operadoreen eta zamaketarien arteko lankidetzak sustatzea

Kontzentraturik gero behar besteko bolumena osa dezaketen salgaien bolumen txikietatik abiatutako tren-zerbitzuak eratzea da ekintza honen helburua (multibezko zerbitzuak), bai eta errepide bidezko garraioen operadoreekin eta logistika operadoreekin –besteak beste– tren-zerbitzu intermodalak sortzea ere.

3.1.5 ekintza Euroeskualdeko administrazioekiko lankidetzak bultzatzea, Euroeskualdeko errepide bidezko garraio publikoko zerbitzuak modernizatze eta hobetze aldera

☐ Garraio-zerbitzuen informazioa iristearekin eta ordainketa-sistema integratuak (ticketing) garatzearekin zerikusia daukaten proiektu teknologikoak sustatzea.

☐ Mugaz gaindiko errepide bidezko eta erabilera orokorreko garraio publikoko zerbitzuak emateko baldintzak hobetzea ahalbidetuko duten proiektuak eta proba pilotuak sustatzea, herritarrek interes orokorreko zerbitzuetara iristeko eta arrazoi turistikoek bultzatutako bidaiariak mugitzeko trafikoei dagokienez.

3.2. jardun-ildoak:

INGURUMENAREN IKUSPEGITIK ERREFERENTZIAZKO GUNE BIHURTZEAK EUROESKUALDEA, ETA LURRALDE-ANTOLAMENDURAKO POLITIKAK KOORDINATzea

Helburu orokorra

Euroeskualde osoan ingurumen-estrategia partekatua garatzea da helburua.

3.2.1 ekintza Mendialdearen barrualdean abiatutako ekimenei eustea eta horiek hedatzea

3.2.2 ekintza Atlantikoko itsasertza zaintzeko baterako praktikak abian jartzea

3.2.3 ekintza Lurralde- eta hiri-antolamendurako politikak koordinatzea

3.2.4 ekintza Klima-aldaketa aurre egiteko ekintzak sustatzea

3.3. jardun-ildoak:

EUROESKUALDEKO BALIABIDE NATURELEI BALIOA EMATEA, MODU PARTEKATUAN

Helburu orokorra

Natura-baliabideei balioa ematea bateragarria izan daiteke ingurumen-kezkekin, bai nekazaritzari (abeltzaintza eta nekazaritza), basogintzari edo energia berriztagarriei dagokienez, bai produkzio-ereduak espezifikotatutara eta Euroeskualdearen irudira egokituz.

3.3.1 ekintza Elkarrekin sustatzea kalitateko nekazaritza

3.3.2 ekintza Euroeskualderako basogintza iraunkorrari balioa ematea

3.3.3 ekintza Energia berriztagarrien gaineko esperientzien eta ekimenen berri ematea elkarri

3.4. jardun-ildoak:

EUROESKUALDEKO TURISMOA SUSTATZEKO EKINTZEN GARAPENA BULTZATZEA, MODU KOORDINATUAN

Helburu orokorra

Turismoa gero eta jarduera garrantzitsuagoa da Euroeskualdean, eta, BPGd-aren ehunekoari dagokionez, pisu handiagoa du Akitanian. Duela urte batzuetatik hona mugako kostaldean (Biarritz/Donostia) lankidetzak batzuk egiten diren arren, Euroeskualde-lurralde osora –hiri handiak (Bilbo/Bordele/Iruñea) ere kontuan hartuta– egiten diren bisita orokorrek biderkatu egiten dituzte baterako aukerak.

3.4.1 ekintza Kanpoko merkatuekiko turismo-sustapen komunari ekitea

3.4.2 ekintza Euroeskualdean partekatutako turismo-sektoreak eta hurbiltasuneko turismoa bultzatzea

3.4.3 ekintza Euroeskualdeko prestakuntza profesionala bermatzea turismoarekin lotutako lanbideetan

4. jardun-ardatza:

GOBERNANTZA

- 4.1. jardun-ildoak:
MAILA ASKOTARIKO GOBERNANTZA ETA PROIEKTUEN ARABERAKO KUDEAKETA BULTZATZEA

4.1.1. ekintza: Euroeskualdearen erakundearteko foroak sustatzea

4.1.2. ekintza: Focus groups/lantalde tematikoak sortzea, lankidetzak-proiektuak koordinatzeko eta sustatzeko tresna gisa

4.1.3. ekintza: Ad-hoc talde eragileak sortzea, proiektu zehatzak kudeatzeko

4.2. jardun-ildoak: EUROESKUALDEAREN IRUDIA ETA PRESENTZIA INDARTZEA	4.2.1. ekintza: Euroeskualdeko LLETaren presentzia indartzea Europan 4.2.2. ekintza: Euroeskualdearen eta LLETaren komunikazio- eta hedapen-ekintzak garatzea: Urteko foroa
--	---

4.1. jardun-ildoak:

MAILA ASKOTARIKO GOBERNANTZA ETA PROIEKTUEN ARABERAKO KUDEAKETA BULTZATZEA

Helburu orokorra

Eraginkortasun politikoa, politiken koherentzia eta gobernantza-maila guztien arteko aurrekontu-sinergiak sustatzearen alde lan egin; era berean, sareak ezarri organo politikoen eta administrazio publikoen artean, tokian tokiko mailatik hasita Europaraino eta alderantziz, nazioz gairik lankidetzaren indartzea indartuz aldi berean.

4.1.1 ekintza Euroeskualdearen erakundearteko foroa sustatzea

Erakunde-arloko Foro bat sortu behar da, eta Foro hori euskarria eta elkargunea izango da mugaz gairik lankidetzaren eremuan dauden erakundeentzat; era berean, lankidetzaren egoerari buruzko aldizkako "argazki" zehatza izateko balio izango du. LLETa buru dela egingo den aldizkako jardura horrek ahalbidetuko du 2014-2020 aldirako ezarritako helburuak betetzeko beharrezkoak diren koherentzia eta eraginkortasuna ematea lankidetzari.

4.1.2 Focus groups/lantalde tematikoak sortzea, lankidetzaren proiektuak koordinatzeko eta sustatzeko tresna gisa

Lankidetzaren proiektuak koordinatzeko eta sustatzeko lan etengabeari eusteari begira, zenbait *focus groups* edo lantalde tematiko abiatuko eta dinamizatuko ditu LLETak. Lantalde horiei esker, Plan honetan estrategikotzat hartu diren askotariko lan-eremuetan garrantzitsuak diren eragileak saretuko dira.

4.1.3 ekintza Ad-hoc talde eragileak sortzea, proiektu zehatzak kudeatzeko

Lantalde tematikoen eztabaidetatik eta lanetik, proiektu zehatzak garatzeko aukerak sortuko dira. Zehatzapen xeheagoa egiteko eta proiektu horiek abiarazteko nahiz kudeatzeko, talde eragileak eratzea proposatzen da.

4.2. jardun-ildoak:

EUROESKUALDEAREN IRUDIA ETA PRESENTZIA INDARTZEA

Helburu orokorra

Komunikazio Plana aplikatu behar da, eta LLETak tokiko, probintziako, eskualdeko, estatuko eta Europako intereseko gisa identifikatutako sare eta erakundeetan presentzia handiagoa izateko lanean jarraitu behar da.

4.2.1 ekintza Euroeskualdearen presentzia indartzea Europan

4.2.2 ekintza Euroeskualdearen eta LLETaren komunikazio- eta hedapen-ekintzak garatzea: Urteko foroa